# Bezeroekiko Harremanak

Gure **bezeroekin harremana sortzeko** hainbat modu bilatu ditugu, hala nola, web orrialde bat, eskuorriak, zozketak, ospakizunak…

Hasteko, gure ideia ezagutzera emateko eta aldi berean jendea (bai eskolek bai pertsona partikularrek) gure ideian interesa izateko, **zozketak** egingo ditugu 4 hilabetean behin. Zozketa hauek sortuko ditugun sare sozialen (Instagram, X…) bidez egingo ditugu eta gure helburua agendak eta egutegiak banatzea da. Honi esker, jendea gure ideia zein den jabetuko da, gure kontuak zabalduko direlako erabiltzaileek zozketan parte-hartzean, eta, norbanakoaren bizitza antolatzeko balio diren produktuak banatzean, gure helburua indartuko da eta jendea produktu hauen erabilgarritasuna argi eta garbi ikusi ahal izango dute.

Bestalde, **Osasun Mentalaren egunean** (urriaren 10an) zenbait **ekintzak** egingo ditugu, esate baterako, gure ideiari buruzko hitzaldiak, antsietateari buruzko eta hau kontrolatzeari buruzko aktibitateak, umeentzako landarei buruzko aktibitateak (haien hazia landatzea, marrazkiak margoztea…)... Ekintza hauek Herriko Plazan edota Bilboko Zazpi Kaletan antolatuko ditugu eta egun hauekin Psycho Floran egiten dugun, zer lortu nahi dugun eta jendea nola kolaboratu ahal duen (landareak erosten) jakitera emango dugu.

| **Aktibitatea** | **Nori zuzenduta dago?** | **Aktibitatearen Helburua** |
|---|---|---|
| Psycho Florari buruzko hitzaldiak | 10 urtetik gorako pertsonei | Gure helburuak ezagutzera ematea eta jendea guri ekonomikoki laguntzea nahi izatea. |
| Antsietateari buruzko aktibitate dinamikoak | 12-21 urteko gazteei | Gazteek gaixotasun honi buruz informatzea munduan dagoen arazo larri honetaz jabetzeko eta orduan gure ideia ulertzeko eta gurekin kolaboratu nahi izateko (haien eskolei ideia proposatuz edota gure landareak erosiz). |
| Landarei buruzko aktibitateak (margoztea, hazi propioak haztea…) | 3-12 urteko umeei | Umeek landareak maitatzeko horrela gureak erosi nahi izateko eta honekin batera, haien gurasoek lanadareen onuraz jabetzeko eta horrela gurekin kolaboratu nahi izateko. |

Esandakoaz gain, **web orrialde** bat sortuko dugu non bezeroek gure ideiaren eta gure psikologoen zerbitzuaren informazio guztia irakurri ahal izango dute. Gainera, orrialde honetan ere, azpiatal bat egongo da landareen salmentaren informazio guztiarekin eta hemendik porduktua erosteko aukerarekin. Honetaz gain, “Kontaktua” izeneko atalan gure emaila, telefonoa, sare sozialak eta ordutegia agertuko dira jendea guri edozer galdetu ahal izateko. Honi esker, goikoan aipatutako ekintzen bidez gure izena entzuten duen edo nor edo halabeharrez gure web orrialdea aurkitzen duen norbaitek guri buruzko guztia jakin ahal izango du, konpontzen saiatzen ari garen arazoa barne, eta modu zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izateko aukera izango du. Gainera, zozketak eta Osasun Mentalaren egunean egingo ditugu ekintzak web orrialdean iragarri egingo ditugu.

Honetaz gainera, **eskuorriak** ere banatuko ditugu jendea zuzenean gure ideia ezagutu ahal izateko eta aurreko bidetatik ezagutu digutenak fisikoki guri buruzko informazioa izateko. Orri hauetan, web orrialdean bezala, psikologoen informazio guztia agertuko da landareen salmentaren azpiatal batekin. Gainera, zozketak eskuorrien bidez iragarriko ditugu, jende gehiago gure sare sozialetan sartzeko interesa izateko, beraz periodikoki liburuxka berriak banatuko ditugu.

Bestalde, “Psycho Flora”-n oso garrantzitsua izango da **bezeroak mantentzea**; hori dela eta, bezeroak leialak izateko landareen negozioan, hainbat teknika desberdinen erabilera egingo dugu, esate baterako, bonoak eta bazkideak egin.

Alde batetik, **bonoak** nolabaiteko tresna bat izango da gure bezeroak landareak erosten jarraitzeko, horregatik, lehen erosketan hamar seiluak jartzeko kartoi bat bidaliko da, eta eskaera bat egiten duten bakoitzean, horietako seilu bat jarriko dute (lehenengoan ere). Horrenbestez, azkenean, hamar seiluak lortzen direnean, hots, hamar landare-eskaera eginez gero, beste bat dohainik izango dute.

Beste aldetik, bai landareen bai psikologoen bazkideen fideltasuna lortzeko beste modu interesgarria gure bezeroak **bazkideak** izateko ahalmena izatea da. Honez gero, txartel batzuk eratuko ditugu, bezeroek hilabetero diru kantitate bat ordaintzearen truke haiei hainbat abantaila emango dietenak, hala nola, deskontuak, zozketetan automatikoki sartzea, opariak…

**Web orrialdea eta liburuxka:**

Hurrengo argazkietan gure web orrialdearen zati batzuk ikusi ahal dira, baina oraindik ez dago amaituta, amaitu ahal izateko gure ideiarekin benetan hasi behar delako, hau da, landareak landatzen (beraz, oraindik ez dugu produktuak haien prezioekin, argazkiekin, informazioarekin… jarri):






























Azkenik esku-liburu edota liburuxka ere oraindik amaituta ez dago informazio guztia ez daukagulako. Hurrengo linkan liburuxka orain dagoen moduan agertzen da: [PSYCHO FLORA LIBURUXKA]